

Ingurumena errespetatzen duten produktuen katalogoa osatzen dute, 2020an elektrizitate-kontsumoaren karbono-aztarna ezabatu ostean

## Kutxabankek bere 'produktu berdeen' eskaintza zabaldu du, etxebizitza jasangarrietarako mailegu eta etxe-aseguru espezifikoekin

- **Energia-ziurtagiri altuagoak dituzten higiezin finantzaketa bultzatuko dute, eta A eta B kalifikazioak dituztenen babesa 'Aseguru Berdearen' bidez**
- **Bankuak auto ekologikoak erosteko edo energia aurrezten laguntzen duten etxe-erreformetarako dituen finantzaketa-irtenbideei batu zaizkie bi produktu horiek**

**2020ko otsailaren 10ean.** Kutxabankek beste urrats bat egin du erakundeak **garapen jasangarriarekin eta ingurumen-zainketarekin** duen **konpromisoan**, eta **'Mailegu Berde'** berri bat jarri du merkatuan, energetikoki eraginkorrak diren etxebizitzak eskuratzea errazteko, hau da, **A edo B kalifikazioa** dutenak. Kalifikazio horren pean sartzen diren etxaldeen finantzaketa-baldintza bereziak izango dituzte, eta kontsumo txikiko higiezin horietarako sortu den **Etxe Berdearen Asegurua** kontratatu ahal izango dute.

Merkatuan jarri dituen bi produktu berri horiek **garapen iraunkorarekin eta ingurumenaren zainketarekin** finantza Erakundeak duen **konpromisoa** islatzen dute, naturarekiko errespetua sustatzen duen katalogo zabal baten bidez. Erakundeak urteak daramatza ibilgailu eta etxetresna elektriko efizienteak eskuratu daitezela errazten.

Gaur egun, **eskaintza oso lehiakorra** du **energia-kontsumoa murriztu** nahi duten etxeetarako, leihoak ordezkatzeko, berokuntza eta klimatizazio sistemak hobetzeko edo galdarak aldatzeko.

Era berean, finantzaketa-erraztasunak ematen ditu auto **elektriko** eta **hibridoak** erosteko edo **ordezko erregaiek** (biodiesela, gas naturala, petrolioaren gas likidotua edo hidrogenoa) bultzatutako ibilgailuak erosteko.

Kutxabankek ingurumen-politika instituzional oso aktiboa du, baita Ingurumen Praktika Onen Gida bat ere, Kutxabanken lan egiten duten pertsona guztiak sentsibilizatu eta horien ingurumen-jarduna hobetzea helburu duena.

Enpresa-arloan, finantza-erakundeak enpresa bezeroak ekonomia berde eta iraunkorrago baterantz igarotzea errazten du, eta energia berriztagarriak sortzeko proiektuak garatzen

dituzten enpresa-proiektuak babesten ditu, edo beren jarduera naturguneak babestera bideratzen dutenak.

Eguzki-energiatik datorren elektrizitate berdez soilik hornitzen diren lantokiak dituen lehen finantza-erakundea da Kutxabank, eta, beraz, ekoizten zuen karbono-aztarna erabat ezabatzea lortu du.